



AGINDUA, Hezkuntzako sailburuarena, ofizioz ebazten duena 2025-2026 ikasturtean itundu beharreko unitateak zehazteari buruzko 2022ko ekainaren 21eko Aginduaren 17. artikuluan ezarritako itunen aldaketa.

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko ekainaren 21eko Aginduak deialdi bat egiten du, hezkuntza-itunak berritzeko eta hezkuntza-itunen araubidera sartzeko, unitateak zehaztuta, bai eta laguntzako langile osagarriak ituntzeko ere, 2022-2023 ikasturtean hasi eta 2027-2028 ikasturtera arteko indarraldiarekin

Bestalde, Hezkuntzako sailburuaren 2025eko irailaren 3ko Aginduaren bidez, ebazten baita 2025-2026 ikasturterako unitateen zehaztapena eta laguntzako langile osagarriak ituntzea; bai eta hezkuntza-itunen araubiderako sarbidea ere, 2025-2026 ikasturtean hasi eta 2027-2028 ikasturtera arteko indarraldiarekin.

Hezkuntzako sailburuaren 2025ko azaroaren 4ko Aginduak hasiera ematen dio 2025-2026 ikasturtean itundu beharreko unitateak zehazteari buruzko 2022ko ekainaren 21eko Aginduaren 17. artikuluan ezarritako itunen ofiziozko aldaketari.

Ofiziozko aldaketa horren eraginpean dauden ikastetxe pribatu itunduak aztertu ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

Aldatzea agindu honen eranskinean zerrendatutako ikastetxe pribatu itunduen 2025-2026 ikasturteko ituna.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaioke Hezkuntzako sailburuari agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

Hezkuntzako sailburua,
BEGOÑA PEDROSA LOBATO.